

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Zenbait sailtako lanpostuen zerrenda aldatzea

2024ko ekainaren 7an egindako ohiko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak zenbait sailtako lanpostuen zerrenda aldatzea onetsi zuen. Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45.3 artikuluari jarraituz, aldatketaren berri ematen da.

Lanpostu zerrenda (LPZ) administrazio publikoek plazen eta lanpostuen egitura antolatzeko erabiltzen duten nahitaezko tresna teknikoa da, kalitateko zerbitzu publikoa eskaini eta enplegatu publikoak behar bezala kudeatu ahal izateko. Sailek adierazten dituzten beharren arabera antolatutako egintza da, haiek zehazten baitituzte antolakunde osoa eratzen duten lanpostuetan jarduteko betekizunak. Administrazioak bere burua antolatzeko duen ahalmenaren adierazpena da, legeak babestua.

Lanpostu-zerrendan lanpostuaren funtsezko ezaugarriak, eginkizunak eta lanpostua eskuratzeko betekizunak agertzen dira. Tresna dinamiko bat da, eta Udalbatzak une bakoitzean dituen beharrei erantzuten die. Horregatik ezinbestekoa da hura egokitu eta aldatzea, erakundeak dituen beharrak bete behar baititu.

2024ko maiatzaren 24an, Antolakuntza Zerbitzuak jakinarazi du 2022ko lan-eskaintza publikoan onartutako lanpostuen zerrendako hiru dotazio aldatu behar direla, eta oraindik eskaintzaren deialdi publikoa egin gabe dago. Lanpostuak 2024ko errealitatera egokitzeko beharrak oinarritzen ditu aldatetako. Ondorioz, ustiapen eta sistemetako goi-mailako teknikari lanpostuaren dotazio bat aldatzea proposatu du, eta aurrerantzean datu-analista (goi-mailakoa) deitzea, izan ere, datuak aztertzearekin lotutako eginkizunak betetzen ditu egun datuaren bulegoan; halaber, mantentze-lanetako ofizial espezialistaren lanpostuaren dotazioari dagokionez, lanaldiaren ehunekoa murriztea proposatu du, hartara mantentze-lanetako ofizial espezialista lanpostuko gainerako dotazioekin homogeneizatzeko, titularra erretiratu egin baita; gizarte-langilearen lanposturako, berriz, lanpostuen zerrendan dotazioaren lanaldia handitzea proposatzen du, ehuneko bera duen programa bat amaitzear delako. Aldaketa horiek egin ondoren, aldatu egingo da 2022ko eskaintza.

Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 90.2 artikulua eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak xedatzen dute derrigorrezkoa dela lanpostu-zerrenden bitartez egituratzea erakundea. Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateginaren arabera, gainera, tresna hori publikoa izango da.

Bestalde, abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legeak hauxe dio 45. artikuluan:

2. Lanpostu-zerrendek hauek hartuko dituzte barruan, batera edo bereizita: aurrekontuan zuzkidura duten egiturako lanpostu guztiak, funtzionario, langile lan-kontratudun eta behin-behineko langileentzat erreserbatuta daudenak.

6. Nolanahi ere, lanpostu-zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatuko dira lanpostuak. Era berean, egitura organikoa aldatu nahi izanez gero, aldi berean aldatu beharko dira dagozkien lanpostu-zerrendak edo haien ordezkotako tresnak.

Halaber, administrazio publikoak, bere burua antolatzeko duen eskumena dela eta, zerbitzuak egokien deritzon moduan antola ditzake eraginkorragoak izan daitezzen, Konstituzioaren 103.1 artikuluan emandako aginduaren ildotik, eta bere interesak betetzeko antolaera egokienak aukeratu.

Hortaz, efikazia hori lortze aldera, eta kontuan izanik zenbait lanpostutan egokitzapenak egiteko premia, Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuak txosten arrazoitua egin du, beharrezkotzat jotzen duelarik lanpostuak oraingo jarduera-eremuari eta zereginei egokitzea, erakundeak eskatzen duenari hobeto erantzutearren.

Proposamen honetan jasotzen diren aldakuntzak indarrean dagoen araudiaren ildotik izapidetu dira, eta aldeko txostena egin du udal kontu hartzailetzaren organoaren titularrak aurrekontu-kreditua egoteari buruz.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 37.2 artikuluan eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 40.5 artikuluan xedatutakoari jarraituz, bilerak egin dira udaleko langileen batzordearekin, 2024ko maiatzaren 15ean eta 22an, hain zuzen.

Euskal Enplegu Publikoaren Legeak 45.3 artikuluan xedatzen du lanpostu-zerrendaren aldaketak ALHAOn argitaratu behar direla.

Beraz, aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan izanik, Toki Araubidearen Oinarririk arautzen dituen 7/1985 Legearen 127. artikulua —abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— aitortzen dizkion eskumenez baliatuz, eta 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez haren esku utzitako aginpidea betez, Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehen. Lanpostuen zerrendaren aldakuntza onestea, honen arabera:

Lanpostuaren kodea eta izena aldatzea.

01- Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasuna.

Aldatzea Zuzendaritza Nagusiaren Zerbitzuko Datuaren Udal Bulegoari atxikitako ustiapen eta sistemetako goi mailako teknikari lanpostuaren dotazio bat (011103.5027; ID 9272). Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: B08 (fisika), B10 (matematika), D03 (informatika), D12 (ingeniaritza elektronikoa edo telekomunikazioetako ingeniaritza elektronikoa), D20 (informazio-sistemen ingeniaritza edo kudeaketarako informatikako eta informazio sistemen ingeniaritza), D28 (telekomunikazio-sistemen ingeniaritza edo telekomunikazio-teknologiako ingeniaritza) edo 652 (lizentzia: informatika, zientzia zehatzak, fisika-zientziak, informatika-ingeniaritza, telekomunikazioen goi-mailako ingeniaritza edo elektronikako goi ingeniaritza); 2110A eskala (administrazio berezia; azpieskala: tekniko; mota: goi mailako teknikaria); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 24, eta berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05; B gidabaimena.

Aurrerantzean:

Zuzendaritza Nagusiaren Zerbitzuko Datuaren Udal Bulegoari atxikitako datu-analista (goi-mailako teknikaria) lanpostuaren dotazio bat (011103.9029; ID berria). Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: B08 (fisika), B10 (matematika), D03 (informatika), D12 (ingeniaritza elektronikoa edo telekomunikazioetako ingeniaritza elektronikoa), D20 (informazio-sistemen ingeniaritza edo kudeaketarako informatikako eta informazio sistemen ingeniaritza), D28 (telekomunikazio-sistemen ingeniaritza edo telekomunikazio-teknologiako ingeniaritza) edo 652 (lizentzia: informatika, zientzia zehatzak, fisika-zientziak, informatika-ingeniaritza, telekomunikazioen goi-mailako ingeniaritza edo elektronikako goi ingeniaritza); 2110A eskala (administrazio berezia; azpieskala: tekniko; mota: goi mailako teknikaria); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 24, eta berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05; B gidabaimena.

Lanaldiaren ehuneko aldatzea.

09. Funtzio Publikoa.

Aldatzea Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuko Zerbitzuen Atal Osagarriari atxikitako mantentze lanetarako ofizial espezialista lanpostuaren dotazio bat (091502.1722; ID 7362). Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: C2; titulazioa: eskola-graduata, LH 1 edo baliokidea; 2130D eskala (administrazio berezia; azpieskala: teknikoa; mota: zeregin-bereziak), 2220D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: suhiltzaileen zerbitzua), 2230D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin bereziak), 2241D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: lanbideetako langileak; kategorია: arduraduna), 2242D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: lanbideetako langileak; kategorია: maisua), 2243D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: lanbideetako langilea; kategorია: ofiziala), 2244D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: lanbideetako langilea; kategorია: laguntzailea), 2245D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: lanbideetako langilea; kategorία: langilea); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 14, eta berariazko osagarria: 213; dedikazioa: ehuneko 115; B gidabaimena.

Aurrerantzean:

Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuko Zerbitzuen Atal Osagarriari atxikitako mantentze lanetarako ofizial espezialista lanpostuaren dotazio bat (091502.1722; ID 7362). Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: C2; titulazioa: eskola-graduata, LH 1 edo baliokidea; 2130D eskala (administrazio berezia; azpieskala: teknikoa; mota: zeregin-bereziak), 2220D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: suhiltzaileen zerbitzua), 2230D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin bereziak), 2241D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: lanbideetako langileak; kategorία: arduraduna), 2242D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: langibeetako langileak; kategorία: maisua), 2243D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: lanbideetako langilea; kategorία: ofiziala), 2244D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: lanbideetako langilea; kategorία: laguntzailea), 2245D eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: lanbideetako langilea; kategorία: langilea); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 14, eta berariazko osagarria: 213; dedikazioa: ehuneko 100; B gidabaimena.

11. Gizarte Politikak.

Aldatzea Adinekoen Zerbitzuko Adinekoen Atalari (113310.6023) atxikitako erdi mailako gizarte-langile lanpostuaren dotazio bat (ID 8906). Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A2; titulazioa: E42 (gizarte-laneko gradua) edo 501 (gizarte-laneko diploma); 2120B eskala (administrazio berezia; azpieskala: erdi mailako teknikaria); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 23, eta berariazko osagarria: 110; dedikazioa: ehuneko 50; IT txartela: 05.

Aurrerantzean:

Adinekoen Zerbitzuko Adinekoen Atalari (113310.6023) atxikitako erdi mailako gizarte-langile lanpostuaren dotazio bat (ID 8906). Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A2; titulazioa: E42 (gizarte-laneko gradua) edo 501 (gizarte-laneko diploma); 2120B eskala (administrazio berezia; azpieskala: erdi mailako teknikaria); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 23, eta berariazko osagarria: 110; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05.

Bigarrena. Funtzio Publikoaren Sailari agintzea behar diren izapideak egin ditzan lanpostu-zerrenda aldatzeko.

Hirugarrena. Lanpostuen zerrenda aldatzeko erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena. Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa hilabeteko epean, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Orokorrari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin lotuta aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 30ean

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO